

DEBAKO MUSIKA TALDEEN TOPAKETA

2011ko urriaren 8a, larunbata

Elizako klaustroa

HASIERA

Arratsalde on: lantxo hontan, azkeneko 50-60 urtian, Deban, musikak izan dun ibilbidia nolabaitt marrazten saixauko gea. Bilketa lan bat iñ da horretarako baiña ez diogu gauza serixo batek eskatzen duan dedikazioik eskaiñi. Hamen ez degu historia osua jasota ikusiko, beraz; baiña zertzelada nagusixenak, seguru asko, bai. Hala ere, hori esanda, zerbaitten falta somatzen bada, akatsen bat ikusten bada, barkamenak eskau nahiko genittuzke hasieratik eta hoixek zuzentzeko eta osatzeko, edozeiñ aportazio eskertuko genukeela esan nahiko genuke lehenengo.

Deban, sekulako musika tradiziua dago aspaldittik. Musika kalian bizi ta gozatu izan da. Hamen entzungo dittugun taldiak ze girotan sortu zian ikusteko hasierako diapositiba hauek ikusi besteik ez dago.

Argazki mordua egongo dia hor zihar giro hau erakusten debenak; pertsona eta jende gehixo ere bai, dudaik gabe. Baiña hori ilustratzeko gutxi hauek balixo debelakuan, hortxe.

Ozio bide alkartian, adibidez, festa handixa itte zan inauterixetan. Kalian eziñezkua zan, Francok debekauta zeuzkan-eta; baiña elkartiak pribauak zian neurrixan, gizonen arteko festak mantendu in zian. Ozio Biden, adibidez, Jose M. Letek antzerki gidoiak idazte zittuan eta Jose Inazio Urbietak dekoratuak itten.

Bandarik ez zanian ere, kuadrillak beraien “banda-txaranga” modua itte zeben.

Entsaion bat edo beste itte zeben aurretik, baiña ospakizunan muiña beti izate zan umoria eta musika (kantua, soiñua, gitarra, pianua,...), herrixa girotzia eta ondo pasatzia.

1962-1967 / ONDAR BELTZ OTXOTEA

Garai hartan, txikiteua, abestuz itte zeben. Ohitturia zan kuadrillaka kantatzia. Generazioka pasatze zan kantatzeko zaletasun hori. Benin Goikoetxea, Iñaki Lete, Rafael Rodríguez, José M. Escos... izan zian otxotekuen aurrekuak. Haixen atzetik ibiltze zian tabernaz taberna, abestixak entzun eta ikasiz. Garai hartan, oindik, gizionekuak bakarrik ibiltze zian tabernetan, andrazkoik ez. Andria plaza publikuan ez zan

ondo ikusixa. Beraz, garai haixetako musikia, festa, umoria,... gizonetzuek eta gizonetzuek itte zeben. Horrela sortu zan otxotientzako musika asko eta asko.

Ondar Beltz otxotekuak S. Viator eskolan ikasi zeben. Han ba omen zan "hermano Ismael" deitze zioben maisu bat, kantatzia ikaragarri gustatze zitzakona. Harek erakutsi omen zien kantatzen eta harek zaletu omen zittun. Orduan, eskolan, ezin zan euskaraz iñ, debekauta zagan. Horrek ezinbestian erdaldundu zun mutiko haixen arteko harreman eta kaleko girua. Ikasi eta kantatze zittuen abesti guztixak erderaz zian.

Garai hartan Deban apaiz zebillen Jose Luis Gorostidik ("El sobrino" deitze zioben Donostiako Orfeoiko zuzendarixan iloba zalako) karta bat bialdu zien, Buru Zuriñeko jangelan ittekua zan billera batera: Juan Mari Goikoetxea, Jose M. Escos, Asensio Esnaola. José M. Rodríguez, José Antonio Garate, Fernando Goikoetxea, Benin Goikoetxea eta D. Inazio Zabaleta abadiak jaso zeben gonbidapen haura.

Ifar kaleko ikastolan entsaiatze zeben. Hiru entsaio astian. Gehixenek bazakaben oiñarrizko solfeo ezagutzak. Bat edo bestek, baiña, ez; belarriz ikaste zeben. Partiturak zuzendarixak eskuratze zittun, Orfeoiko osaban bittartez edo.

Kantu zaletasunagatik hasi zian kantatzen, ez euskal kontzientzia kontziente batengatik, baiña euskeraz kantatze zeben. Hainbat lehiaketetan ibilli zian eta 1966xan, kanporaketak pasa eta gero, Arrasateko Guria Antzokixan in zan finalian, 2. postua lortu zuan Ondar Beltzek.

Han jasotako diruekin egun pasa bat antolau zeben Bizkai aldera: Gernika, Lekeitio,...

Urte hortako iraillian, Jose Luis Gorostidi zuzendarixakin zeukan harremana tarteko, Michel Labegueryk (Euskal kantagintza berrixan aitta pontekuak) Iparraldera gonbidau zittun, Ezpeletan ospatu zan Euskaldunen Biltzarrera. Tartian grabazio bat itteko aukera zagan (hegoaldian eziñezkua zan eta, asko, iparraldera jute zian grabatzera) baiña, azkenian, ez zan posible izan. Argoitia anai-arrebak ere bertan izan zian.

Ezpeletekua berezixa izan zan zortzikotiantzat. Hamen Franco zagan eta euskara edo euskaldunekin zerikusixa zakan dana debekauta zagan. Baita, nola ez, ikurriña bera ere.. Ezpeletara iritsi orduko, baiña, sekulako ikurriña ikusi zeben herrixan sarreran txintxilikauta, ongi etorrixa itten. Emozionauta geratu zian debarrak haura ikusittakuan.

.- Bi apaizak Debatik lekuz aldatu zittuenian, bat Hondarribira eta bestia Seminariora, desegin zan otxotia.

Pena bat da; gaurkuan ez degu haixek entzuteko aukeraik izango baiña haixen testigantza ere ekarri nahi izan degu hona, garai hartan, euskal kulturai eindako ekarpenagatik. Aitortza moduan txalo bat eskauko nizueke eurentzat.

1968-1970 / M.C. AROSTEGI:

1961ian *Euskal Kantagintza Berrixa* izeneko mobimientua sortu zan. Euskal kultura azpirauta zagan garai hartan, eta euskal abesti herrikoiak jendartian entzute ez zianez, abesti zahar haixek hartu ta jantzi berrixekin aurkeztia zan mobimientu hartan parte hartu zebenen asmua.

Gizarte injustiziak salatu eta bertako hizkuntza aldarrikau zeben, frankismo garai hartan. Euskal Herrixan elebakarra izan zan kantagintza haura. Michel Labeguery izan daitteke *Euskal Kantagintza Berrixaren* ikonotako bat baina baitta Lourdes Iriondo re. Garai hartako Euskal Herrixan ez zan batere ohikua emakume bat oholtza gaiñian agertzia, gitarra eskuetan zula. Halaxe agertuko zaku gaur, hamen, M. Carmen Arostegi, Lourdes entzuten egongo bagiña bezelaxe.

Baiña kontau ditzagun M. Carmenen hasierako kontu batzuk:

- Donostiako Santo Tomasetan erosi zion amak, Cesteria Iriondonian, gitarra bat, 500 pezetatan. Etxian ez zakixan inork jotzen, baiña euskal kantarixen disko asko eukitze zeben. Orduko banda zuzendarixekin (Eulogio López Masidekin) ikasi zuan akorde batzuk jotzen. Belarriz ateratze zittun kantuen akordiak eta diskoetatik entzunaz ikaste zittun letrak.

- Amak apuntau zuan Eibarko "Concurso de Canción Vasca" lehiaketara, eta jun in bihar! Lourdes Iriondon "Gaua" eta "Libertade antsia" eta Benito Lertxundin "Gazte sentimental" kantau zittun. Bigarren geratu zan, finalera etortzerik izan ez zuan partaide baten partez parte hartu ta gero.

- Deban, Mutrikun, Bergaran eta Arrasaten behintzat kantau zuan, modu batera edo bestera. Modu batera edo bestera esan det, Bergaran, Benito Lertxundikin batera kantatzekua zanian, guardia zibilla jun zitzaielako (metraillea eta guzti) kontzertua debekauta zaguata ta bertan behera lagatzeko aginduz. Ez zan iñ, ba, aurreikusittako kantaldixa aurreikusittako tokixan. Bai, baiña,

euskaldun onak bezela, zeoze jatera jun eta inguruko elkarte eta tabernetan. Arrasateko dantzalekuren batian amaittu zeben kantari.

- Talde batian aritu zian gero. Lagunartian. Jabi Arostegi anaixa, José Luis Martínez, Miren Lore Rodríguez, Andrés Acosta, Miguel Angel Landa, M. Carmen Martínez eta M. Jose Kareaga zian taldekide. Ameslariak taldian “Lorerik ederrena” edo “Martin Luther” kantatze zeben, Urretxindorrek-en “Mendi puntatik” edo “Neska zaharrak” eta baita Etxezarretak idatzitako “Debako herriari” bertsuak ere. Bada anekdota politt bat, M. Carmenek kontautakua, kanta hau dala ta: ai omen zian taldekuak, diskuan belarrixa jarritta, kantu baten letra atara nahixan baiña lortzen ez! Kauldi aitta, berriz, orduko “Zeruko argia” irakurtzen ai omen zan. Bapatian esan omen zun: “kantu hori ondo dijua bada, bertso hauekin”. Bertsuak zeñ izango ta Jesus M. Etxezarreta “Izazpik” “Debako herriari” ipiñitakuak. Oskarrik Pello Joxepe kantatzeko erabiltze zuan musikia zan haura baiña handik aurrera letra horrekin kantau izan zeben taldian. Baita, Ezbai taldiak ere.

1975-1977 / EZBAI

Otxotekuak eurek baiño zaharraguen atzetik ibiltze zian kantuak ikasteko. Ba, Ezbaikuak otxotekuen eta haixen kuadrillakuen atzetik ibiltze zian, tabernaz taberna, gauza hoixe bera itteko.

Garai hartan Ez dok Amairu mobimientuaren indarra bizi-bizi zuan oindik. Ez Dok Amairu 1965 eta 1972 bittartian izan zan kultura mobimientu abangoardista izan zan, hainbat artistek osau zebena: abeslarixek eta idazliek batez ere.

Kantuak itxaropena, justizia, pakia eta askatasun mezu berrixak zabaltzeko bide izan zian. Momentu hartan hain jota zagan euskal kultura suspertu eta berritu zuan. Kultur ezaugarrixez gain, errebindikazio politiko eta sozialak zaskaben, nahiz eta, oindik, Francon diktaduran menpe egon. Sekulako lan berritzaillia in zeben: euskeraz ordu arte indako aipagarrixenetakua izan zan

Ez dok Amairu 1972xan desegiñ zan arren, artian diktadura amaittu gabe zaguala, mobimientu harek sortutako itxaropen eta askatasun egarrixak, urte luzez iraungo zuan, orduko abesti haixek euskal kantutegixan txertautu geratzeraiño. 75ian gaiñera, Franco hil zanian, sekulako uholdia izan zan hamen. Are eta indar haundixaguakin errebindakatzen zian Euskal Herrixa, ezkerra eta askatasuna. Ezbai taldekuek garai hartako batzuk kantauko dittue gaur.

Halare, badia gauza kurioso batzuk taldian inguruan komentatzeko: 75eko abuztuan kantau zeben lehendabizikoz: “Xur xuri baten gainean”

kantau zebe. Nun? Ba, Kasino gaiñeko Club del Mar-en. Udatiarren seme-alabentzako urtero antolatze zebe kantu lehiaketan. Han euskeraz kantatze zan lehenengo aldixa izan zan.

Belarriz ikaste zittuen kantuak, eta Zokoan itten entsaiuak. Lehenengo bestien kantuak abesten hasi zian. Gero, Jesus M. Etxezarretak idatzitako letrak hartu eta Santi Gimenezek ipiñitako musikakin kantatze zittuen.

Toki askotan eta talde ta kantari ezagunenekin jo zebe, gehixenetan ezagunen bidez: ezkontzetan, Nemesio Etxanizi indako omenaldi batian, Hazparnen... Eta Izukaitz, Miren Aranburu, Joseba Etxeberria, Oskorri, Gorka Knorr, Lupe eta Iñaki Eizmendi, Pantxoa eta Peio, Benito Lertxundi, Oskarbi, Xabier Lete, Urko, Ortzadar, Ibai Rekondo eta holakuekin.

1975-1985 / KALEZ KALE TXISTULARI TALDEA

Faustino Urain, Ramon Azpeitia, Ramon Unanue, Jose Antonio Garate, Miguel Muxika, Angel Iriondo, Sotero, Julian Urain "kalitxe", José Sukia, Jose Luis Albizu, Aitor Iriondo "tambores", Rikardo Franco (udatiarra), "Pipas", M. Conchi Rodríguez, Miren Pilare Galarraga, Nere Itziar Iriondo, Rafa Arostegi, ... izen mordua.

Txistua bere kasa transmititu izan da Deban, banakotik banakora. Momentu batzutan, txistua jotzeko iñor ez zaguala emate zuanian, beti agertu izan zan baten bat, ikasi eta guria dan instrumentuai eutsi izan diona. Izan du, txistuak, ahulenian ere, indar hori.

Garate, Muxika, "Kalitxe", Iriondo eta haixen garaixan euren kasa jotzen zebe, Udaletxetik xemeikoik jaso gabe: San Roketan, San Juanetan (Santa Katalinan), San Antoniotan (Sasiolan), eta abar. Dantzarixekin ere ibiltze zian festak aillegatzen zianian, baiña entsaio gehixegirik iñ gabe.

Txistuak oso garestixak zian eta Jose Antoniok kontau digu nola "alboradak" itte zittuen dirua lortzeko: baten batek urtiak itte bazittun, karta bat bialtze zioben, halako ordutan bere etxera jun eta, zorientzeko, txistua jo nahi ziobela esanez. Trukian, urtiak betetze zittunak, pastelak edo holakuak eta diru pixka bat ematen omen zien. Horrela erosi zittuzten txistuak lehenengo ta danboliñak gero.

1965-1970eko urtietan, Udaletxiak esanda, ariñ-ariñak eta fandanguak jotze zittuen banda munizipalak domekero itte zittun saiuetako deskantsuetan. Horren truke eskupeko bat jasotze omen zebe, oso simbolikua izan arren.

Gerotxuo etorri zianak, Jose Luis Albizu, José Sukia eta haixek ere, antzera ibiltze zian. Miren Pilare eta Nere Itziarrekin, Rafa “tanborrerua” ere tartian zala, festetan jotze zeben. Sukia arduratze omen zan Udaletxiakin “negoziatziatz”, festetan jotzian truke zenbat jasoko zeben adostiaz; eta, gero, txistulari danen artian partitze omen zeben.

Momentu batian, baiña, batzuk kanpuan ikasten, beste batzuk lanian, txistua erakusteko jendian falta sumau zan eta orduantxe aillegau zan herrira, suertez, Miren Gurutz Ugarte, sortzez tolosarra. Ikastolan lanian zebillen Begoña Andonegiren bittartez hasi zan txistua erakusten.

Miren Gurutzek piano ikasketak iñ zittun lehenengo, baiña berak kontatzen du nola pianoko karrera amaittu zuanian, etxera jun da aittak esan zion: “ondo da, pianua iñ dezu, zorionak; baiña bertakua dana, txistua, ez dakizu”. Barru barrurairño sartu omen zitzakon aittak esandako hori, berai ez zitzaiolako okurrittu ere iñ ikasi zezakeenik (garai hartan neskek ez zeben txistua jotzen). Txistua erosi ezkerok ikasiko zula aginduta, halaxe in zuan.

Eta pasadizo horrek sekulako pixua izan zuan Miren Gurutzen ibilbidian. Solfeua berakin ikasi zebenei, txistua debalde ikasteko aukeria eman zien. Horrela hasi zan zapatu goizetan neska-mutillei txistua erakusten. Hasieran, poxpolinekin, txistuak asko balixo zeben eta. Lortu zuana, baiña, ikaragarria izan zan: generazio osuak txistua ikasitta atara zian Miren Gurutzenetik.

Taldetxuak osau orduko irtetzen hasi zian. Ikaragarri lagundu zion Rafa Arostegik, bai jotzen baitta umiak kalia ibiltzen ere (60 bat ume alkartze zian). Egun seiñalatuetan beti jotze zeben: Alderdi egunian, Gabonetan, hilabeteko azken igandetan... beraien inziatibaz.

Serixuo 75ian hasi zian, silbote eta guzti. Taldiak izenik hartu ez bazuan ere, larunbatero alkartu eta gauza gehixo prestatzen hasi zian. Ume mordua alkartu zan eta pilla bat jotzen zeben. Horregatik, Udalak, eskursio bat ordaintze zien ikasturte amaieran. Rekuerdo polittak dazkabe egun pasa eta gau pasa haixenak, mandixuan elkarrekin parrandan, kantuan eta barrez.

Festetan bertako jende nagusixagua agertzen zan jotzera (urtian zihar kanpuan zeudenak eta beste) eta hor alkartzen zian danak: transmisuak ez zun etenik izan txistuan kasuan.

Musika eskola sortu zanian, Ainhoa Agirrebaltzategik hartu zuan lekukua (hori ere Miren Gurutzen ikaslia izandakua eta txiki-txikittatik jotzen ibillitakua). Ordutik, urtero, etengabe, 20 ikasletik gora izaten

dia musika eskolan txistua ikasten; eta festetako kontuez aparte, beste kontzertu eta saio pillua itten dittue. Izen asko bota dittugu hasieran baiña gero etorri dianen izenak ematen hasteik ez dago. Asko baino gehixo dia-ta.

1981 - SANTA ZEZILIA SOINU ORKESTRA

Rosaritok Bikondoakin ikasi zuan akordeoia, ikasliek eskau itte ziobelako; berez, piano ikasketak iñ zittuan eta. Pentsa zernolako demanda, ikasle haixekin orkesta bat osatzeko aiña iñ zuala: Santa Zezilia orkesta, 1981ian

Garai hartan ez zan oso ohikua andrazkuak zuzendari ikustia. Akordeoia jotze zebe gehixenak ere neskak zian, mutil gutxi ibilli zan orkestan.

Pixkanaka perkusiua sartzen jun zan. Horretarako akordeoia ez beste ikasketak iñ zittun jendia ekarri zuan: Ainhoa Agirrebaltzategi, Belen Arrue, Rakel Zabala, bere alaba Cristina...

Beste taldiekin elkarlanian aritzia gustatze zitzakon: koruakin, txistuakin, bandakin,... Taldekidiei ez zakue sekula ahaztuko, behiñ, elizan, TXANTON PIPERRI jotzen hasi zianian koruakin, nola jaiki zan jendia bankuetatik, batez e jende nagusixa eta zenbat txalo jo zebe! Bi aldiz jo bihar izan omen zebe. Eurentzat abesti bat gehixo zan baiña jendiantzat "Euskal Herriko himnua" konnotazio guztixekin.

Anekdota modura gauza asko kontau leizke:

.- Gure Kaien itte zittuen entsaiuak, Eliza gaiñeko lokalian. Soiñua hartu ta eskailera haixek danak igotzia bera re, ez zan kontu makala!!!

.- Rosaritok asko zaintze zuan protokolua kontzertuetan: kontzertu hasieran bera agertze zanian tente jarri ta jendia agurtu. Makillakin keiñua itte zuanian exeri. Bakarleri arittu ezker, agurtu... Horrelako detaiilliak asko zaintze zittun! Berakin ikasi omen zebe orkestetan ohikua dan protokolo hori dana.

.- Rosarito afoniakin, hitz egin eziñik egon arren, entsaiuak itte zittuen. Berak zuzenketak koaderno batian apuntau eta, gero, Dabik ahots goran irakurtze zittun: "berriro hasierara, baiña pianoago zati hau eta hau..."

.- Behin, Mamuteko piano denda baten azpitan kontzertu bat eman omen zebe; orduan modan omen zeuden Pottokixak. Abestixa jotzen zebe bittartian pottokiz jantzittako Debako ume batzuk (aurpegi urdiñ-urdiñakin) dantzatan in omen zebe!!!

.- Rosaritok soinu orkestra zuzendu zuan urte askotan. Baiña umien korala ere urte askuan zuzendu zuan. Gaur musika eskolako korua eta soiñu taldea izango ditzugu hamen. Zuzendari lanak Lorea Urkirik ingo ditzu ta Andima Egaña izango du laguntzaille.

1980-85? - DEBAKO MUSIKA BANDA

1960ra salto iñ ezker, banda munizipala ikusiko genduke Deban. Banda horrek festetan eta egun seiñalatueta jotziaz aparte, domekero domekero jotzen zittuan plazan "bailabliak". 1965a izango zan, gutxi gora-behera, haura desegin zanian. Aurretik izandako banden zuzendarixak ezagunak dia: Izaga, Urain eta Lopez Masid, azkena.

Kontua da azken haura desegin zanian, festetarako ere ez zala talderik gero Deban. Musika tradizio haundikua da, baiña, Deba. Eta bandarik gabeko urte haixetan, kuadrillek eo lagun taldiek, eo lehenuo bandan ibilitako batzuek alkartu eta animatze zebe kalia. Batzuk instrumentu gehixokin, beste batzuk gutxiokin eta turuta pilla batekin.

1978ra etorritta, Udalak Zestuako banda ekarri zuan korridetan jotzera. Baiña haixek zezenetako musikaik jotzen ez! Protestak izan zian publikuan eta, hori aitzakitza hartuta eo, besteik gabe, zeoze itteko gogua zakalako, Santi Giménezek (lehengo bandako instrumentuak Udaletxiak zakkala jakinda) gazte batzuk bildu zittuan (txaranga modura ertetze zebeak-eta) Federikoneko etxe azpiko lokal batian eta erabaki zebe zeozetan hastia.

Udaletxian instrumentuak eskau eta entsaiatzen hasi zian; batez e festetako. Batzuk ez zakixaben solfeoik eta Santik kantatzen eta grabatze zian jo biharrekua. Hurrengo urtian, zezenetan, eurek jo zebe. Hor sortu zan, batzun aldetik, festetatik aparte, kontzertun bat eo itteko gogua. Eta hala erabakitta, entsaiuak modu ordenatuaguan itten hasi zian.

Santi kanpuan zebillen lanian eta erritmo hari heltzeko zera haundirik gabe, Andima Egaña hartu zittun banda zuzentzeko lanak. 1982xa-edo izango zan.

Ez zan, hala re, banda tipiko bat. Erropetan ere ikuste zan hori. Lagun kuadrilla batetik sortutako proiektu bat baizik. Kontau digube, adibidez, Santiri despedida in zioben egunian luzatu iñ zala kontua eta gauian jotzen segittu zebela. Itxuria, baten bat kejau in zan udaletxian eta multia jaso zebe horregatik. Multa haren originala gordeta daka, baten batek, oindik ere.

Ordurako ume batzuk ingurau zian bandara: Fefe, Gaizka, Alfonso, Sergio,... Haixek ikasteko zakaben erreztasuna ikusitta instrumentuak erakusteko irakaslien billa hasi zian, Elgoibarren, Eibarren,...

Kultur Elkartian laguntzakin antolau zittuen, bi-hiru urtez, ikastaruak. Musika eskola sortiaz ere orduntxe ai zian hitz egiten... 85ian sortu zan musika eskola eta, banda, banda modura kontsolidatu zan Patronatuan sartuz.

Handik aurrera ibilbide luzia eta oparua izan debe bandakuek. Euskal Herriko banden lehiaketetan jasotako sarixez gain, beste taldiekin elkarlanian indako hainbat eta hainbat emanaldi, festa, kontzertu,... DVDiak, jazzaldixa,... Fernando Urainek zuzentzen du banda jun daneko 20 bat urtian.

1994 - AITZURI ABESBATZA (1987 eta 1991)

Aitzuri abesbatza Alostorrea eta Gure Ametsa abesbatzak alkartzetik sortu zan.

1987xan 60 herritar baiño gehixo alkartu zian herriko bi apaizei omenaldixa itteko (batak, D. Anesek, 50 urte betetze zittuan apaiz ta bestiak, D. Mikelek, 25). Perossi-n mezia kantau zebe ta Rosarito Balentziagak zuzendu zuan, ordurako soinu orkestakin dexente ibilittakua zan-da.

Hainbeste jende bilduta, Jose Antonio Garate, Miguel Angel Landa ta beste batzuk, koru bat osatzeko ideiak hasi zian. Jendia prest zauala jakinda, Rosaritori proposau zioben korua zuzentzia ta horrela sortu zan, 88xan, Alostorrea abesbatza.

Edade diferentetako jende ugari bildu zan koru hartan. Zaharraguak, helduak eta gazte batzuk ere bai, ta hori oso aberasgarria izan zan danentzat.

1991n, San Vicente de la Barqueran antolatze zan "Concurso de la canción marinera"n eman zebe izena. Ordura arte nola hala konpondu bazian ere, trajiak itteko aprobetxau zebe. Taldekuak zian Begoña Arostegik eta Begoña Arangurennek diseiñau zittuen gonak eta beste batzun laguntzakin moztu zittuzten telak. Kultur Elkarteko azpiko lokaletan alkartze zian probatzeko ta, dana ondo bazaguan, bakoitzak bere etxera eramaten zuan josteko. 2. postuakin etorri zian San Vicentetik.

Esan biharra dago hasiera-hasieratik kontau izan dula koruak, beti, herriko organistakin: Edurne Rodríguezekin. Mezak ziala, Salbia zala,... beti prest egon izan da-ta. Aipatzekua da, baita ere, garai

hartan bi itziartar bajatze ziala taldian kantatzera; astian bi aldiz, entsaiuetara: Sabin Alberdi ta Begoña Beristain zian.

Anekdota modura kontau leike 1989ko abenduan Elgoibarren kantatzekuak ziala baiña Deban izan zan sutiagatik atzerau iñ bihar izan zebela; batetik kamiñuak itxitta zeudelako, ta bestetik apuro galanta zakabelako, batzuen etxietan zer gertauko.

Koruko afarixak ere goguan dazkabe. Helduek jo ta ke kantatze zeben; rantxerak eta horrelakuak. Gaztiak ideiaik ere ez. Haixengandik hainbat eta hainbat kantu ikasi zittuen. Matxin ere, Miguel Angel Landaren ahotik ezagutu zeben.

Urte horretan bertan, 1991n, neska talde bat zuzentzen hasi zan Amaia Zinkunegi. Urtia amaitzerako, baiña, mutillak ere bat iñ zeben Gure Ametsa izeneko abesbatza gazte bat martxan jartzeko.

Giro aparta zakaben; lagunartekua. Zapatuetan itte zittuen entsaiuak eta, gero, txikiteora jute zian kantuan jarraitzera. Euskal kantuez aparte, beste musikak eta instrumentuak gehitzen jun zian. Pianua, musika eskolako soka taldia, bandako instrumentu batzuk,...

Politta da ikustia koru hartan ibili zian neska-mutil gazte haixetatik bikote bat baino gehixo sortu zala; taldietan sortzen dian harreman indartsuen erakusgarri.

1994an alkartu zian bi abesbatzak Aitzuri osatzeko.

Amaia Zinkunegi izendatu zeben zuzendari. Hasi ta gutxira laga zuan ordia, arazo pertsonalengatik. Ainhoa Sorazu arittu zan, orduan, urtebete inguruan, lan hoixetan. Parentesi hori amaittuta, Amaia zuzendaritzapian berriro, Belgikara in zeben biajia, Brujas, Ganten eta Bruselan kantatuaz. Amaian alabak, Udane, urtebete exkax zakan ta hantxe soltau zan ibiltzera; primeran portau zan.

Baten batek urtiak betetze zittuanian, zeoze ekartzeko ohitturia zakaben koruan; pastak eta holakuak normalian. Rosa Sukianak diferentia izate zian: meriendatxo natural sano askua itte omen zeben, garaiko fruta mordua ekartze zuala ta!

Urtiak aurrera, taldea sendotzen jun zan eta 2000. urtian, Erreteriko orkestra sinfonikuakin batera, Mozarten Requiem meza kontau zeben, lehenengo aldiz, Debako musika hamabostaldixan. Geroztik gauza eta proiektu asko in dittu abesbatzak. Azken 10 urtetan Fefe Urainek: Verdiren Requiem Italian, Debako musika hamabostaldixa, Donostiako zinemaldixa, grabaziak,...

1990 / FANBALTZ

1990ian sortu zan, Ainhoa Agirrebaltzategi ezkotzen zala ta, haren elizkizunian zerbait jotzeko asmuakin zabiltzala. Txistulari taldian zabiltzan danak baiña kantu haixek gitarra eta soifnuakin osatzia erabaki zebeu. Ematen duanez, ideia gustau iñ zitzakuen, eta handik pixkatera, Iñaki Kareaga, Fanbaltz izeneko bere lan batekin etorri zanian, ilusioz hartu zebeu haura entsaiatzeko lana. Partitura haura, soinua, 2 txistu, gitarra eta bajuantzat zauan pentsautu. Hasieran beste batzuan folk kantua jotzeko asmuakin ibili zian: Oskorri, Benito Lertxundi, Sorotan Bele, Xabier Lete... baiña, denboriakin, gero eta gehixu izan zian eurek sortutakuak. Emanaldi dexente iñ zittuen, bai Deban baita Debatik kanpo ere: Oiartzun, Eibar, Elgoibar, Bilbo, Etxalar,... Alboka taldian telonero ere jardun zebeu eta 2 CD grabau zittuen: Fanbaltz izenekua bata eta Imajinazioa deittutakua bestia. Taldeko kide izan dia, mometun baten edo besten baten, Iñaki Kareaga, Silvia Gil, Ismene Salegi, Jasone Galdona, Miren Gurutz Ugarte, Itziar Arrizabalaga, Ainhoa Agirrebaltzategi, Edurne Loiola, Josune Urbieta, Aitzol Loiola, Virginia Salegi, Lorea Martinez, Ana Ulazia eta Sergio Salgado.

Anekdota modura bi kontau dizkigube:

Bata hau:.-1994an Debako kiroldogixan Odol Elkartien Biltzarrian jo zebeuian, haiñ gaizki entzute omen zan, megafoniakin ezin zebeu asmau! Antolatzailliak esan da esan ibilli omen zian oso gaizki entzuten zala, letra ez zala entzuten, dana nahasten zala... baina eurek entsaio asko in zittuela eta jo iñ nahi zebeu... Azkenian mesedez eta faborez isiltzeko esan eta musika tresnak gordeta aldeñ bihar izan omen zebeu.

Eta bestia: Eibarko ...eta kitto!!! elkartian tabernan, Iñaki taldeko abestixak aurkezten hasi omen zan eta "ARRAKASTA" hitzakin behin da berriro trabau omen zan AKARRASTA esanez. Akarrasta gora eta akarrasta behera ibili omen zan gau guztixan eta bestiak barriai eutsi eziñik.

TRIKITIXA TALDIA

Garai batian erromeixak pandero hutsakin itte zittuen. Kontua zan plazan, eo auzuan eo mendi tontorrian biltze zan jendia dantzan jartzia, festa giruan ondo pasatzia.

Eta panderuai, batzutan eta ahal zala, beste instrumentu batzuk sartze zitzakozen: txirula adibidez, eo txistua, eo bioliña...

Gero Europatik trikitixa ailegatu zanian, beste instrumentuei tokixa hartzen jutsu zan, akordioak-eta sartzeko modua emate zunez, aukera berrizak eskaintze zittulako.

Trikitixa ez da hainbeste jo kostaldeko herrizetan; behe aldeko herrizetan behintzat. Mendi inguruan gehitxuo. Deban oso gutxi; Itziarren zeozer gehixo. Mutrikun, Zumaixan edo Zarautzen ere ez; baiña herri hoizetako mendi inguruko auzuetan bai.

Hamen, ezagunak, Euskal Herrizian zihar gutxi-asko ibilli izan dianak, Sakabi eta Txankarta izan leizke eta baita Arranekua ere (ez degu bere argazkirik garaiz lortu). Urki eta Ziolar, duduak gabe; eta, gaur egun, Jon Ostolaza eta Rakel Pujana. Fuerte datoz, euskal jaizian ikusi genduan bezela, Maitane Unanue eta Alaitz Escudero.

2008 / DEBAROCK KOLEKTIBUA

Deban, gaztetxe inguruan musika talde pila bat ai zan sortzen; musikak sekulako gorakada edo booma izan zuan. Musika taldiak desberdiñak zian, bakoitzak estilo diferente bat zakan. Eta hori aprobetxauta, hilero antolatze zian kontzertuak gaztetxian. Esan leike egunero pasatze ziala taldiak entsaio gelatik bakoitza bere gustoko musika ittera eta, bide batez, gaztetxeko eguneroko bizitza alaitzia lortze zebela.

Jende kopuru dexentia, ba, musikian inguruan bueltaka; eta haizen artian gauzak modu egokizaguan antolatzeko eta aurrera errezago itteko, talde eo eragile bat sortzia erabaki zeben, 2008xan gutxi gorabehera: Debarock kolektiboa. Kolektibuan lehenengo erronka entsaio gela txukundu eta prestatzia izan zan; biharrezko materialarekin hornittu eta bihar bezela antolatzia, taldiak erosua entsaiatzeko.

Hori inda, bertan zeuden taldiak ezagutzera emateko lanekin hasi zian. Hori dala ta, autoekoiztutako CD bat atara zeben gaztetxeko entsaio gelan grabauta. Talde bakoitzak bi-hiru kantu grabau zittuan eta CDak sekulako harrera izan zuan herrizian, kopia danak saldu zian da.

Denboria aurrera, gero eta talde eta norbanako gehixo ai da hurbiltzen kolektibora. Entsaio gelan tamaina txikizak eta teilatuan egoera txarrak, bertako materialantzat kaltegarri ziala ikusitta, ganorazko entsaio gela baten biharra ikusi da. Horren aldeko borroka egin izan debe azken urtizetan hainbat ekintza antolatuz eta badirudi Agirre jauregizian izango debela musika itteko toki duinen bat.

Gaur egun, hauek dia Debarock kolektibuan dauzen taldiak: Strikers, Txabola Crew, Secuestro Express, Debaser, Orbital Planets eta Debako elektrotxaranga. Halare, atiaz zabalik dazkabe kolektibuan

parte hartu nahi deben guztixentzat.

AMAIERA

Eta hoixe izan da dana gaurkoz. Hamendik aurrera ere talde hauek danak eta sortuko dian bestiak ere euskal kulturai ekarpen haundixak iñgo dizkiobelakuan, ondo-ondo segi eta eskerrik asko. Lehenengo ta behiñ, ekitaldi hontan parte hartu dezuen musikari guztixei. Gero, hamen egoteik izan ez deben baiña besteren baten, seguru, egongo diane. Ekitaldi hontarako materiala eman diguten guztixei: argazkixak zein kontakizunak. Eta, azkenik, baitta ikusle/entzule modura egon zeaten guztixoi ere. Ondo-ondo segi eta hurren arte.